


Altza

Larraitx Garmendia [fnoa.: 391267]

Euskal Herrian Euskaraz-en salaketa

altzako Euskal Herrian Euskaraz taldeak, «Altzan euskaraz bizi nahi dugu» izeneko idatzi baten bitartez, auzoko institutuan euskarazko adarrak bizi duen egoera salatu du. Izan ere, institutuan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 3. eta 4. maila ari diren ikasleek, ezingo dute BBBren 3 maila eta UBI euskaraz egin.

EHEk salatu duenez, Eus-



Argazkio: Oier Los Sanjos

kal Autonomi Elkarteko Hezkuntza Sailak prestatutako plagintzan 1999-2000. urtea arte ez da maila hauetan euskarazko eskaintza sortzea aurrikusten. Ondorioz, gure hizkuntzan ikasi nahi duten gazteek Altzatik beste nonbai-

tera joan beharko dute. Guzti honengatik, EHEk lotsagarritzat jo du euskaraz auzoan bizi duen egoera.

EHEren arabera, Altzako institutuan 2000. urtea arte A ereduari eusteak dakarrenez gain, auzoko beste esko-

letan egoera ez da hobea. Oleta eskolan haurrak A ereduari ari dira; Eraikuntza eskolan ere euskarazko eskaintzarik ez dago eta helduen Hezkuntza Zentroan ere ez da euskara bultzatzeko egitasmorik.

Euskal Herria prentsaren ikuspegitik

Aste honetan zehar Larratxo Ikastetxe publikoa izandakoan Hitzegin taldeak erakusketa berezia antolatu du. Bertan «Hogei urte, Euskal Herria prentsaren ikuspegitik» izenburupean adierazpen askatasunaren alor ezberdinak izan dira ikusgai.

sukaldeak galeriak

GIPUZKOA

ELEKTRAGAILUAK • TB. • BIDEOA

Gipuzkoa Plaza 4 • Tfnoa.: 42 35 65

SUKALDE
ALTZARIAK

PARMA hotela

Itsas aurrean. Bainua, kalefazioa, telebista eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TFNOA: 42 80 19

Argitarapen honen edizioko laguntzaille:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación